

AURORA



“Emakume aske bat etorkizun posible baten ametsa da” - Malala Yousafz

Anartz Bruña, Uxue Barrenetxea, Maider Sanchez eta Maider Matilla gara. Durangoko Fray Juan de Zumarraga institutuko 2.batxilergoko ikasleak gara. Ikasle oso langileak gara, ikasteko gogotsu eta oso ekintzaileak gara.

Matxismoaren aurkako aplikazioa egitea erabaki dugu, uste dugulako gaur egungo gizartean matxismoa oraindik presente dagoela, gure eguneroko bizitzakoa dela eta emakumeek etengabe jasaten duten zerbait dela. Uste dugu aplikazio honekin jarrera batzuk aldatzen saiatu gaitezkeela eta emakumeak apur bat babestuago senti daitezen. Gure aplikazioak hainbat tailer eta zerbitzu eskaintzen ditu, emakumeak beraien eguneroko bizitzan apur bat seguruago senti daitezen.

Aurora aukeratu dugu gure aplikazioaren izen gisa, Aurora eguzkia atera baino lehen agertzen den lehen argia delako. Aldaketa baten hasiera sinbolizatzen du, matxismoaren iluntasuna atzean utzi eta gizarte justuago eta berdinzaleago bati bide emanez. "Argi berriaren" ideiak adimenak argitzeko eta jarrerak eraldatzeko helburua sinboliza dezakeela uste dugu.